

# Ezkerrak vs eskuinak


Jende gehiena eskuina da, hemen eta globo osoan. Kopuru txiki batek, aldiz, ezkerreko eskua, begia, belarria eta oina hobesten ditu, aukeran.

Albotasuna eta eskuin joeraren aldeko desoreka zerk eragiten dituen zehatz-mehatz argitu ezinean, bi joeren arteko desberdintasun esanguratsuak identifikatzera bideratu dira azterketa gehienak.

**GARBINE**

**UBEDA GOIKOETXEA**

Ezkerren artean gehiago dira gizonezkoak emakumezkoak baino. Estatistiken arabera, hiru ezkerretik bi gizonezkoak dira.





Retegi I, pilotaren historian ezagutu den ezker handienetakoa eta Sebastian Gonzalez.

Abel Barriolak entrenamendu berezia jaso zuen joan den ekainean, Lehen Mailako Buruz Buruko Txapelketaren bigarren finalerdiaren karietara. Sebastian Gonzalez-en kontra jokatu behar zuen partidaren gerta zitezkeen sorpresak ebitatzeko, beste jokalariek ezker batzuekin aritu zen lanean. Leitzarraren hitzetan, "pilotari emateko modua zenbaitetan desberdina izateaz gainera, toki asko behar izaten dute kantxan. Ezkerrek asko okupatzen dute". Kantxan ez ezik, baita mahaiaren ere. Edo hala iruditzen zaie, behintzat, ezker baten ondoan jatea tokatzen zaie eskuinei.

“**TENIS-KANTXETAKO** gaur egungo nobedadea, hitzetik hortzera darabilen fenomeno, punta-ko jokalarien artera heldu diren emakumezko errusiarrak dira”, zioen Raúl Fain Brinda kirol aditu eta zutabegileak, 2004ko irailean BBC Mundo.com-en idatzitako artikulu batean. “Ni, berriz, tenislari ezkerren desagertzeak nau benetan ardurutzen”.

Ez zuen arrazoirik falta. Harez gerotik Rafael Nadal kataluniarra gailurreraino heldu bada ere, urrutitxo gelditu dira joko alderantzikatuaren hegemoniak, ezkertasuna arrakastaren sinonimo bilakatu duten izar mitikoak, Rod Laver, Jimmy Connors, John MacEnroe, Martina Navratilova edota Monika Seles, kasura.

Neurozientziak ere arretaz jarraitu izan diote gaiari. Harvard unibertsitateko Hol-zen doktoreak, esaterako, honakoak aitortzen dizkie ezkerrei: funtzio motore hobeak, bista eta gorputz adarren bat (beso nahiz hanka) ahal bait lehen uztartzea eskatzen den ekintzetarako erreflexu bizkorragoak eta, eskuin hemisferioa garatuago izaki, espazioaz ohartzeko erraztasun handiagoa. Mota honetako kiroletarako sortzetiko abildade naturalak, azken finean.

Bere tesiak makulu bikaina aurkitzen du estatistiketan, bereziki 1968 eta 1999 urteen artean psikiatra talde bat lagun zuela egin zituen konparaketetan; denbora epe horretan tenisaren maila goreneko zerrendetara bildu ziren jokalariek guztien joerak banan-banan

aztertu ostean, ezkerrek %28ra heltzen direla nabarmentzen baitu lan horrek. Alimaleko zifra da, urte tarte horretan arrunki aurki zitezkeen ezker kopurua %8,1ean finkatu zuela kontuan hartzen bada. Gaur, ezkerrek populazioaren %8-13 direla estimatzen da.

Halabaina, besterik ere ondorioztatu behar-ko zuketean urrezko aro horren kasuistika dokumentatu beharrean 1999tik aurrerakoak xeheki izan balituzte edota, sinpleki, eboluzioari erreparatu izan baliote. Nadalen kasua albo batera uzten bada, apurka urrituz joan den multzoa baita ezker tenislariena; gizonezkoen kasuan, koiuntura jakin batean kasik erdiak izatetik gizarteen arruntki aurkitzen den %8-13tik behera eskasteraino edota, emakumezkoen kasuan, kopuru eroso batetik ia desagertzeraino murriztu den fenomeno.

Azalpenak bilatzen hasita, ezkerrek ezustea izateari utzi diotela arrazoitzen du iritzi zabalduenak. Alegia, sineskeria ilunetatik askatu eta kantxetan leku hartzen hasi zirenean eskuinak otoz otoan harrapatu bazituzten ere, gaurko egunean ezkerkadari bihurrena ere aurreikusgarri bilakatu dela eta kolpe alderantzikatu horien sekretuak dagoeneko aski ezagunak direla.

Litekeena. Baina aurreraxeago aipatutako kopuru makurrak besterik gabe justifikatzeko balio ez duena. Zerikusirik ere izango du, dudarik gabe, azken urteotan nagusitu den jokamoldeak, teknika engainari eta sorpresazkoen gainetik, batez ere potentzia eta abiadura primatzeak.

Ziklikoa izan ote daiteke?

### **Mekanismo fisiologikoak**

Ezkertasuna hizpide duten lan serio gehienek, aipatu berri dugun honen gisan, garuneko bi hemisferioen espezializazioa dute abiapuntu. Hau da, gorputz alboen mugimenduak kontrolatzeko modu gurutzatua –eskuin hemisferioak ezker aldean gobernatzen du eta ezker hemisferioak eskuinaldean–, zati nagusi bakoitzaren funtzio banaketa nahiz jarduteko modua eta, bereziki, bi hemisferioen arteko konexio sistema, *corpus callosum* delakoa, ezkerren kasuan garatuago dagoena.

Azaldu nahi den teoria ilustratzeko, berriz, aztertutako kasuen estatistikak baliatzen dira batez ere, ezker eta eskuinen arteko konparaketa kuantitatibo-kualitatiboak. Albotasuna eta eskuin joeraren aldeko desoreka zerk eragiten dituen zehatz-mehatz argitu ezinean, ikerlariak desberdintasun esanguratsuak identifikatzen saiatzen dira, hitz bitan esanda.

Hala, neurologia modernoak oinarriak sendotu zituenetik, kolore eta zapore guztietako txostenak aurkitzen ahal dira, ezkerrei jenialtasuna, kirol jakin batzuetarako abilezia apartak edota bideo-jokoetan azkarrago pentsatzeko

## Buruzagi izateko dohainak

AEBetan datozen hauteskundeak nork irabaziko dituen ez daki-gu, baina, gure gaiari dagokionez behintzat, dilema handirik ez dago: Obama izan ala MacKein izan, estaturik boteretsuenak izango duen hurrengo presidentea ezkerria izango da.

Ez da, hala ere, kasualitate honen lehen aldia. 1992ko hauteskundeetan bi lehiakide nagusiak joera honetakoak ziren, eta baita hirugarrena ere. Alegia, Bill Clinton (hauteskundeon irabazlea bera), George H.W. Bush (ordura arteko legealdiko buru izandakoa, urte hartako galtzaile nagusia) eta Ross Perot (Texas estatuko aberats independentea, lehiatik lehenxeago erretiratu zena).

Ezkertasunaren gorabeherak gehien haizatu dituztenek –estatubatuarrak dira gehienak, bidenabar esanda– sarritan aipatu izan dute Etxe Zuriko apopilo izatera heldu direnen kopuru aparta, ezaugarri horrek gidaritzarako edo politikarako karismari ekarpenik egiten ote dion serioski aztertzeraino.

Bi datu egiten zaizkie bereziki bitxi presidente ezkerren clusterra ahotan hartzen dutenean eta hipotesi ugaritarako aitzakiazat hartu izan dituzte. Batetik, AEBetan erakusten duen neurria, arruntki aurki daitekeen ezker proportzioa (%8-13) hainbat bider gaintzen duena, segun eta estatistiketarako datuak nondik nora hartzen diren. Esate baterako, Nixonen garaitik honantzako presidentek bakarrik aintzat hartuta, 7tik 4 dira ezkerrek.

Bigarren datua, AEBetatik kanpora, munduko presidenteen artean aurkitzen den ezker kopuru eskasa. Kurioski, historia hurbilera jo behar izaten dute adibide urri horien bila, gaur egungo presidente entzutetsu eta polemikoenetako bat, agur militarraz aparte eskuinez ezer gutxi egiten duen ezker peto amerikar bat, erabat ahantzita. Hugo Chávez, jakina.

Ezkertasuna berriz ere satanizatuko den beldurra ote?

## Bi eskuak abilki gobernatzeko ahalmena

Bi eskuak (eta maila apalago batean bi hankak) trebe dituenari, zeregin jakin batean bata zein bestea abilki gobernatzen dakienari, anbidestro deitzen zaio. Askok nahi genuke apartekotasun hori guretzat. Besteak beste, Julian Retegi handiak egiten zuen bezala pilota bi eskuekin maisuki jotzeko eta hamaika txapel irabazteko. Halabaina, oso gutxi batzuen esku dagoen ahalmena da eta, areago, anbidestro diren askok ere alde bat hobesteko joera dute.

Bestalde, gorputzaren alde bateko dominantzia ez da konstantea izaten eta, sarritan, albotasun gurutzatuarekin nahasten da, hau da, ezkerrez jan baina futboleko eskuinez aritzen diren kasuekin, adibide bat jartzearen.

Erabiltzen den tresnak albotasun gurutzatua sortzen du batzuetan (argazki edo bideo kamara arruntak, adibidez, eskuinez erabili behar dira ezinbestean). Beste zenbaitetan, lesioek eragiten dute eta entrenamendu bidez ere eragin daiteke.

Pediatra gehien aburuz, anbidestrotasuna (alegia, ez ezker ez eskuin izatea), ondo finkatu gabeko edo zalantzazko albotasunaren seinale da eta, haurren kasuan beti ere, pertsonalitate arazoan iturri izan daiteke.



## Ezkerrak vs eskuinak

ahalmena aitortzen dizkietene-tatik hasita.

Ez dira, ordea, denak alabantzak izaten. Aski ezagunak dira, esate baterako, ezkerrei, bereziki eskuina erabiltzera behartuak izan direnei edota albotasuna erabat finkatuta ez dutenei lotu izan zaizkien okerrak. Besteak beste, toteltasuna, hizketaren atzerapena bezalako mintzamen arazoak, irakurtzeko nahiz idazteko zailtasunak, baldarkeria bezalako urritasun motoreak...

Zer esanik ez Down sindromea, autismoa, eskizofrenia, gaitz psikopatikoak nahiz epilepsia bezalako arazoak sufritzeko aukerekin lotzen dituztenak, edota, are urrunago joanda, bisexual edo homosexual izateko probabilitateak handiagoak direla aipatzen dituztenak. Zein mendetan bizi ote garen galdetzeko moduan, kasik.

Badira, bestalde, ezkerrek eta eskuinek pentsatzeko modua ere desberdina dutela arrazoitzen saiatzen diren teoriak ere. Zabalduenaren arabera, eskuin gehienek –esan nahi baita, ezker hemisferioa nagusi dutenek– informazioa modu sekuentzial linealean prozesatzen dute. Alegia, lan bat bukatu beharra daukate hurrengoari heltzeko. Aldiz ezkerrek –eskuin hemisferioa nagusi dutenek, zehazkiago– aldiberekotasun bisualez jarduten dute, eta hainbat zeregin batera prozesatzeko gai dira. Abildade hori ez zaie, ordea, jendaurrean beti itxuroso gelditzen. Sormen handikotzat jotzen ditugun arren, mila lan hasi bai baina bat bera ere bukatzetik urruti geldituko balira bezala, fundamentu kaxkarra leporatzen zaie.

### Ezkerrak eta erdi ezkerrek

Baina ekar ditzagun gauzak bere onera. Ezkerrek ez dira eskuinen ispilu zehatz. Ez dira ezta zaku berean sartzeko moduko multzoa ere, adibideek erakusten dutenez. Lehen hartutako hariari jarraiki, Rafael Nadalek erraketa ezkerrez dantzaten duela une batez ahortu ahal bagenez eta eskuaren erabilera eskatzen duen beste jardun batean ikusiko

## Garunaren espezializazioa

Eskuin gehienek baita (%95) garuneko ezker hemisferioa da gailentzen dena. Ezkerra eskuinaren bertsio simetrikoa balitz, eta sistema gurutzatua arau matematiko balitz, ezkerrei garuneko eskuin hemisferioa nagusituko litzaieke oro har. Ez da, ordea, horrela gertatzen. Gurutzaketarik ezean, ezker hemisferioak berak eramaten du gidaritza kasu askotan –ia ezkerren erdiei gertatzen zaien moduan– edota bi hemisferioen artean banatzen da.

Lengoaiak eta logikak espazioaren norabidatzeak baino prozesu ordenatu eta sofistikatutakoak behar dituztelako omen dugu garuna banatua eta espezializatua. Baina entzefaloaren zatirik handiena osatzen duten bi estruktura alderantzizatu horiek, ezin dira funtzioen mapa zehatzak balira bezala irudikatu, orain dela gutxi arte uste zen moduan. Teknologia berrien laguntzari esker ikusi denez, garunak orkestra sinfoniko baten moduan jokatzen du funtzio jakin bat burutzea behar duen bakoitzean. Alegia, bi alderdiak elkarren osagarri balira bezala, hainbat area elkarrekin lanean ipiniz.

### Garuneko bi hemisferioen funtzioak

Ezkerrekoa	Eskuinekoa
Sekuentziala	Aldiberekoa
Analitikoa	Holistikoa
Ahozkoa, hitzezkoa	Irudi bidezkoa
Logikoa	Intuitiboa
Prozesamendu algoritmiko lineala	Prozesamendu algoritmiko holistikoa
Oraina eta iragana	Oraina eta etorkizuna
Hizkuntza: gramatika, hiztegia	Entonazioa/azentua, prosodia, pragmatikoa
Literala	Kontestuala

Aritmetika bezalako beste hainbat funtzio integratzaile edota emozioak bi alboetatik kontrolatzen direla uste da.



Futbolak leku berezia gorde izan die beti ezkerrei. Maradona, Puskas, Gento, Lopez Ufarte, Rojo edota Messi bezalako jokalariren arteari esker ezaugarri paregabetsat jo izan da ezkertasuna. Entrenatzaile askok diotenez, hala ere, eskuinak ezkerrek baino lehenago ikasten du hanka 'traketsa' behar denean erabiltzen. Ezker-ezkerrek aparteko lanak hartu behar izaten ditu eskuina askatzen ikasteko.



Jimi Hendrix rockaren historiak jainkotutako izar mitikoak ez zituen ezkerrentzako gitarrak baliatzen beti. Betiko gitarra beste aldera begira jarri eta sokak aldatuz (behetik gorakoak goitik behera jarritz) lortu zituen musikari onenen gailurrera eramango zuten doinuak. Botoiak gitarraren goialdean gelditzea bezalako eragozpenak berdin izan zitzaizkion.

Euskal musikari estimatuenen artean, aski eskarmentu duen bateria jole ezker bat dugu aipagarri: Mikel Abrego.

bagenu –eskolan apunteak hartzen, demagun–, eskuina dela esango genuke oro har, esku hori erabiltzen baitu idazteko. John McEnroe handiak aldiz, gozotasuna bezain gutxi baliatzen du bere esku dorpea. Futbolzale ikaragarria, eskuz eta begiz ez ezik, hankaz ere ezker petoa dela frogatu zuen gaztetan.

Inguruari erreparatzea aski, beraz, ezkertasunak mailak, gorabeherak, salbuespenak eta, hainbatetan, joera esplikaezinak dituela oharzteko. Edota, beste modu batera esanda, ezker-ekerrak, erdi ekerrak eta ia ekerrak ere badi-rela jabetzeko.

Hortik, behar bada, ezkerregiek edo ezkerrentzat bereziki fabrikatutako produktuak saltzen dituzten dendek inguruotan ezagutu duten porrota. Izan ere, estimatzen den %8-13ko kopuruetatik zenbat ezkerrek hobetsiko lituzkete, eskuragarri jarrita ere, ispiluan baleude bezala funtzionatzen duten erlojuak, beste aldera eraginez estutzen diren torlojuak edo ordenagailuetako joystick, xagu eta teklatu alderantzizatuak?

Gaur, horren ortopediko sentitu behar izan gabe, eskuinentzat nahiz ezkerrentzat balio duten produktuak dira estimatuena. Esate baterako, tresna berezia baliatu behar izan gabe, albo batean duten belarriari tiraka irekitzen diren kontserba-latak edo bi albotara zorrotzuta dauden labanak.

Ezinbestean bertsio alderantzikatua eskatzen duten tresnen artean, guraizeak, albo batean mahaitxo baten itxurako ohola duten aulkiak eta gitarra elektrikoak izaten dira salduena.

### Asimetriaren jatorria

Albotasunak, garunaren espezializazioak planteatzen dituen inkognitez gainera, galdera asko ditu oraindik airean, erantzun zuzenaren zain. Errepikatuena jatorriari buruzko azalpenak eskatzen dituena dugu, genetikaren aurkikuntzeekin batera goritu den arren, bizpahiru teorioren hipotesi partziala mugatzen dena.

Herentziari garrantzi handia eman izan zaio beti. Batik bat, genetikak garunaren asimetria aldatzen duen faktorea aurkitu duenez geroztik. Zenbakiak diotenez, haurrek ezker izateko %10eko aukera dute aita ere ezker denean, %20koa ama denean eta %50ekoa biak direnean. Gainerako %50 horrekin zer gertatzen ote den argitzea falta. Eskema genetiko zehatzak lantzen ari diren arren, frogatutakorik ez da oraino.

Bikien kasua ere bitxia da genetistentzat. Monozigotikoak izan edo ez, proportzioa beti bera da: %25.

Stanley Coren psikologo kanadiarraren ustez, ezkertasuna jaio aurreko faseko trauma batek eragiten du. Gizakiak berez omen gara eskuinak, naturak halakoxeak egin omen gaitu, baina haurdunaldiko eragozpenen baten erruz, batzuk ezker bilakatzen dira.

Eta haurdunalditaz ari garela, New England Journal of Medicine-k ama berantiarrek inplikatzeko eragiten dituen ezkerren kopuruak handitzearen arrazoiaren artean: zenbat eta zaharrago orduan eta aukera gehiago haur ezkerrez erditzeko. Testosterona kopuruaren eragina ere zentzu honetan aipatu izan da.

Ezkerrak, hamaika ikusteko jaiok. ■